## ANIMALIEN ONGIZATEA

## BEHI AZIENDA MUTILATZEA



Behi aziendari dagokionez, debekatuta daude ehun kantitate handia galtzea dakarten edo hezur egitura aldatzen duten ebakuntzak eta bereziki honakoak:

- ✓ Mihia aldatu edo mutilatzea,
- ✓ Adarrak kirurgikoki ez den beste modu batez erauztea, eta
- ✓ buztana moztea

### Aparteko praktikak egitea

Gorago debekuei salbuespenak egin dakizkieke, alegia,

1.- Albaitaritza medikuntzarako ebakuntzak,

2.- Ebakuntzetan, abereen onurakoa bada, edo beharrezkoa bada abereekin zuzeneko kontaktuan dauden pertsonak babesteko, esaterako,

- ✓ Adarra sortzen duen anduia goizegi eraitsi edo erauztea (disbudding), gero adarrak ez moztearren
- ✓ Adarrak kirurgikoki erauztea, eta
- ✓ Zezen eta behinen sudurretan eraztunak jartzea

3.- Ebakuntzetan, ahal izanez gero, saihestu behar da, baina honako baldintzetan egin ahal izango dira,

- ✓ Zenenak eta zekorrak zikiratzea, barrabilak kirurgikoki moztea hobeto, baldin eta alferreko min eta sufrimendu luzea eragiten ez bada,
- ✓ Loditzeko behiak zikiratzea, indarreko legeriak halaxe ahalbidetzen badu, eta
- ✓ Abereen belarriak moztu edo zulatzea, indarreko legeriak halaxe ahalbidetzen badu

### Ebakuntzak egitea

Ebakuntzetan, abereak mina pairatzen duenean edo paira dezakeenean, tokiko anestesia edo orokorra eman behar zaio eta albaitariak edo prestakuntza duen pertsonak egin behar du, indarreko legerian agertu bezala.

Abereak lau aste baino gehiago duenean, kirurgikoki edo erreketaren bidezko kauterizazioz behiak zikiratzea, adarrak moztea, adarra sortzen duen anduia goizegi eraitsi edo erauztea (disbudding), zikiratzea eta basektomia barne

Anestesia beharrezkoa ez denean, alferreko min edo sufrimendu luzea saihestu behar da

Esperientziadunek egingo dituzte ebakuntza horiek eta honako baldintzetan

1.- Adarra sortzen duen anduia eraitsi edo erauztea, abereak lau astebete baino gutxiago duenean,

- ✓ Kauterizazio kimikoaren bidez
- ✓ Erreketaren bidezko kauterizazioz, baldin eta erabilitako gailuak hamar segundoz gutxienez bero handia sortzen badu

2.- Zezen eta behinen sudurretan eraztunak jartzea

3.- Abereen belarriak moztu edo zulatzea